

1.- OLABIDELAGUN EGITASMOA

Zer da Olabidelaguna?

Euskaraz hitz egiteko ohitura duten eta mintzapraktika egin nahi duten gurasoak bildu nahi dituen programa da.

Zertarako?

- Gure seme-alabentzat eredugarri izateko eta euskaraz bizitzen laguntzeko.
- Ikastolako euskara zabaltzeko eta indartzeko.
- Gure euskara hobetzeko.
- Lotsa galtzeko.
- Euskaraz bizitzeko.
- Konfidantza hartzeko.
- Ikastolako familien arteko loturak sendotzeko.
- Normalizazioaren alde egiteko.

2.- NOLA FUNTZIONATUKO DU?

- 6 bat laguneko taldeak sortuko dira.
- Talde bakoitzean mintzalaguntzaile bat egongo da (euskaraz ondo moldatzen den pertsona).
- Taldeak astean behin elkartuko dira, ordubetez, ikasturtean zehar.
- Topagunea taldeak erabakiko du: taberna, kafetegia, parkea, kiroldegia...



3.- PARTE HARTZEKO BALDINTZAK

- Komunikatzeko eta ulertzeko gutxieneko maila izatea.
- Astean behin biltzeko konpromisoa.

4.- IZEN-EMATEA

Zer izan nahi duzu?

- Mintzalaguna (euskara praktikatu nahi duena).
- Mintzalaguntzailea (euskaraz ondo moldatzen dena eta dinamizatzaile gisa arituko dena).


Parte hartu nahi baduzu, bide hauetatik egin ahal izango duzu:

- Olabide egunean bertan izena emanaz.
- www.olabideikastola.eus/olabidelagun_webgunean.
- olabidelagun@olabide.com helbidera mezua bidaliz.

Izena emateko azken eguna: ekainaren 23a.

Anima zaitetz!!!
HARREMANETARAKO:
olabidelagun@olabide.com

BIZI EUSKARAZ



GURASOEN EUSKARA BATZORDEA

EUSKARARIK GABE... ZER DA IKASTOLA?

OLABIDEKO MINTZALAGUNA
IZAN NAHI DUZU?



EGIN OLABIDELAGUN...
...ETA BIZI EUSKARAZ!!!